



itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria (((10. zk))) iraila-abendua 2010

.....

Itsasondoko Hiri Antolaketa Plana onartu da (bete ezazu mesedez inkesta)

.....

Gotzon Izquierdo: langile kualifikatu eta
artista paregabea

Juan Mari Otegi "Txato" gogoan
Arbela lur-erraietatik tailerretara (II)



Askorentzat oporrak amaitu badira ere, uda giroa ez da amaitu, eta herriko jaiak aukera paregabea ematen digute, udako azken egun hauek kalean eta jai giroan gozatzeko. Oporrak egunerokotasunaz, lanaz, kezkez eta arazoez ahazteko egunak izaten dira, baina indarrak hartu eta ikasturteari gogo eta ilusio berriz eusteko adorea ere ematen digute. Hori da gure asmoa, behinik behin, eta erronkak eta asmoak ez zaizkigu falta. Nolanahi ere, horiek aurrera eramateko, ezinbestekoa da zuen denon partaidetza, zuek ematen baitiezue zentzua gure proiektuei, eta zihur gaude gure alboan izango zaretela.

Nahiko genuke herriko taldeek prestatu ditugun jaietan parte hartzea, eta nahi dugu herriak herriarentzat eginiko jaiak izan daitezela. Jai egitaraua eta ekintzak gustukoak izatea espero dugu; izan ere, krisiak krisi, saiatu gara denon atseginerako izango diren ekintzak prestatzen, eta, beti bezala, gustura hartuko ditugu denen ekarpenak hurrengo urteetarako. Ondo pasa jaiak!

Itsasondo 2.0 aldizkariari dagokionez, proiektu sendo baten oinarriak hartzen ari dela ikusten dugu: herritarren artean harrera ona du, eta interesa pizten du. Horrez gain, guretzat oso garrantzitsua da ikustea aiez ale herritar gehiago direla egitasmo honekin bat egin eta aurrera jarrai dezan beraien aletxoak jartzen dutenak. Bejondeiela eta eskerrik asko!

Hurrengo alea abenduan izango duzue etxean. Ordura arte, disfruta ezazue bizitzaz, lagunez, lanaz, familiaz, aisiaz, kirolaz, herriaz. Denetarako denbora dago, erronkak asko baitira gure herrian. Gertu espero zaituztegu! ■

Itsasondoko elizako erretaula

Piezas pieza, eta xehetasun eta detaila bakoitza zainduz. Horrela berriro dute Itsasondoko elizako erretaula nagusia. Pieza berezia da, XV.-XVI. mendeen artean egindakoa, eta zaintza berezia behar du. Urtebete pasatu dute Artelan enpresako langileek zaharberritze lanekin, eta behin bukatuta, Itsasondon gustura daude emaitzarekin, garai bateko itxura, koloreak eta distira berreskuratuta baititu erretaulak.

2009ko uztailean hartu zen lanekin hasteko erabakia. Gotzaindegiak eta Foru Aldundiak elkarlanean hartu zuten zaharberritze lanak egingo zituen enpresa aukeratzeko ardura. Lehiaketa publiko bat egin eta gero, Artelan enpresari eman zioten eginkizuna.

Zaharberritzeko prozesuan, erretaularen jatorrizko itxura, formak eta koloreak berreskuratu nahi izan dituzte. Kasu batzuetan, bazeuden hiru eta lau pintura esku originalaren gainetik, eta horrek dena tapatzen zuen. Banan-banan kendu dituzte gaineko pinturak, bisturi batekin. Pazientzia handiz egin beharreko lana izan da. Gaineko pintura kenduta, garai bateko kolore eta testurak azaleratzen saiatu dira. Erretaularen oraingo itxurak ez du azkenaldian zuenaren antz handirik. Koloreak ez ezik, pieza bakoitzak zuen kokapena eta konposizioa ere bereziki zaindu dituzte, eta ama birjina lekuz aldatu dute.

Balio handiko erretaula

Zaharberritze lanak bukatuta, emaitza «harrigarria» izan dela dio Iñaki Larrañaga Itsasondoko apaizak. Herritar askok ezin zuten sinetsi ere egin. «Jendeak esaten du 'baina nondik atera da hau?' Hain handia da kontrastea... Hainbeste urtean ilunpean egonda, jatorrizko koloreak ezkututzen zituen pintura lodikote horrekin, eta hain luze joanda, jendeak ez zuen espero irudi horiek aterako zirenik». Artelaneko teknikariek mezu argia eman diete: «erretaula oso ederra da, eta eutsi egin behar diozue». Antxietaren eskolakoak dira, eta haien arrastoa agerikoa da irudien formetan.



Itsasondoko erretaula

Aurkibidea

- 03-04. **Agenda 21:** Udaleko berriak
- 05. **Jubilatuak:** Jubilatuen ibilaldi bat
- 06-07. **Eskola:** Zuhatza
- 08. **Haurreskola:** Aurreko kurtsoari tamaina hartuta, kurtso berriari ekiteko prest!
- 09-11. **Elkarrizketa:** Gotzon izkierdo-langile kualifikatu eta artista paregabea-
- 12. **Gizarte eta gazteria**
- 13. **Inkesta:** Oporrak
- 14-15. **Arbelgintza Itsasondon:** Arbela, lur-errietatik tailerretara (II)
- 16-18. **Zaharrak berri:** Udalekuak amets lekuak.
- 19. **Arantzadi:** loiaiko putzuaren kontserbazio lanak.
- 20-21. **Pertsonaia:** Txato gogoan.
- 22-23. **Ibilaldia:** Itsasondo-Arama-Abali-Altzagarate-Itsasondo
- 24. **Informatika:** Bideo-jokoak umeen gauzak al dira?
- 25. **Kultura**
- 26. **Liburuaren txokoa**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza**
- 28. **Esaera zaharrak. Kultur agenda. Lehiaketa.**



Sarrerako bertsoak

DOINUA: *Ijitoena (Txirrita)*

*Uda garaian, udalekutaz
hizketan behar da ari,
Gotzon Izkierdok bihur gaitzake
artisaumarraskilari,
bere agurrak galdetu behar
Maite andereñoari...
kurtso berrian negar musika
opatu zaharreskolari.*

*Itsasondoko bezur pusketa
beti izan da arbela
egarritzean Idoiagako
putzuan trago umela,
jubilatuen eskurtsioa,
herriko festak bestela...
oporraldiko aitzakiekien
dibertitu gaitzela.*



Joan den uztailaren 29an, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartu du Itsasondoko Hiri Antolaketa Plana.

Plan berria 2/2006 Legeak, 2006ko ekainaren 30ekoak, Lurzoruaren eta Hirigintzari buruzkoak ezarritako lege esparrura egokitzen da.

Arau berrietan, hurrengo urteetan eraiki ahal izango diren etxebizitzetako lurzoria dago finkatuta; hartara, 138 etxebizitza egiteko lurzoria kalifikatu da, eta horietatik 36 babestutako etxebizitzaren eraikuntzarako gordeko dira.

Lehengoko arauetan markatutako irizpide berari jarraituz, etxebizitza erabilera emango zaio hirigunean industriak hartzen duen lurzoruari. Ildo berean, Oria ibaiaren bideratzea egin ondoren, ibaiaren ezker aldean sortutako 17,6 hektareatako zoruak industria erabilera mantenduko du; izan ere, horren helburua da eremu horretara aldatzea egun hirigunean dauden industriak.

Plan berriak hiri lurzoruaren, lurzoru urbanizagarriaren eta lurzoru urbanizaezinaren araudiak ezartzen ditu, eta moduari, erabilerari eta kudeaketari buruzko zehazpenak ezarri. Horrez gain, finkatu egin da landa eremuan basogintza, nekazaritza edo abeltzaintzaren inguruan urbanizatuak izateko aukeratik babestuta egongo diren lurak zein diren, eta, eraikin berriek nekazaritza ustiatetari loturik egon behar dutenez, eraikitzeko baldintza berriak jasotzen ditu. Txabolen eraikuntzarako baldintzak ere jasotzen dira.

Hitz bitan, gure arauetan, udalerraren antolaketa jasotzen da, bai baimengarriak diren erabilerak, obrak, eraikuntzak eta abarrak, bai debekaturik daudenak. Orain, udalaren zeregina izango da horiek aplikatzea, baina herritarroei arauetik konpromisoa izan dezazun eskatzen dizuegu. Izan ere, azkenaldian, zenbait eremutan arauak errespetatzen ez dituzten zenbait ekintza sumatu dira, eta, horiek zuzentzeko, neurriak hartzeko prest dago Itsasondoko Udala. Jakin badakigu neurri horiek ez direla izango ekintza horiek burutu dituztenen gustukoak, baina arau berriak onartu direnez, horretara beharturik gaude. Ildo horretan, Itsasondoko herritarrek guztionak diren arauak betetzera bideratu nahi ditugu, eta hiri antolaketaren arauak buruz zalantzarik duzuenen, udaletxera etor zaitzaten gonbidatzen zaituztegu. Horretarako, arkitekto lanetan dabilen teknikaria prest izango da. Zerbitzua astelehenetan ematen da, goizeko 09:00etatik 13:00etara.



Hiri antolaketa plana

Onartu berri den antolaketa planak, Agenda 21, izan du abiapuntu; bertan bildutako taldeek egindako ekarpenak, proposamenak eta herri eredu ikuspegia izan dute oinarri arau hauek. Beraien prestaketan eta onarpenean ibilbide luzea egin ondoren, dagoeneko indarrean daude eta Itsasondorentzat mesedeko gerta daitezzen nahiko genuke.

Arau subsidiarioak onartzea urrats garrantzitsua dela uste dugun arren, berauek aurrera eramateko zuen partaidetzak ezinbestekoa izaten jarraitzen du. Honegaitik zure iritzia jakin nahian eta herritarren beharrak ezagutzeko galdetara bat duzue ondoren. Orain arteko partaidetza ereduarekin jarraitzea litza-teke gure asmoa, horretarako gure alboran behar zaituztegu.

Galdeketa

Izen-abizenak:
(Ez da derrigorrezkoa atal hau betetzea)

Egoera zibila:

Telefonoa: Posta elektronikoa

Adin tartea

- 18-35
- 36-60
- 61tik gora

Etxebizitza baten jabe al zara?

- Bai
- Ez

Zergatik erosi nahi duzu etxebizitza berria?

- Lehen etxebizitza erosi nahi dudalako.
- Nire etxebizitza handiegia delako.
- Igogailua duen etxebizitza behar dudalako.
- Nire etxebizitza egoera txarrean dagoelako.
- Beste batzuk:

Zer motatako etxebizitza nahi duzu?

- Babestutako etxebizitza: Babes ofizialekoa Prezio tasatutakoa
- Etxebizitza librea
- Etxebizitza errentan

Zenbat gelako etxebizitza beharko zenuke?

- 2
- 3
- 4

Zenbat m²-ko etxebizitza beharko zenuke?

- 50 m²
- 60-70 m²
- 80-90 m²

Zein epetan erosi nahi duzu?

- 0-2 urte
- 2-5 urte
- 5 urte pasata

Zergatik nahi duzu Itsasondon etxebizitza bat?

- Itsasondoarra naizelako
- Itsasondon lan egiten dudalako

Beste batzuk

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea betez, Itsasondoko Udalak jakinarazten dizu jasotako datuak datu pertsonalen fitxategi batean gordeko direla eta fitxategi horren arduraduna Itsasondoko Udala dela. Halaber, jakinarazten dizu datuak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eskubidea udalera joanda egikaritu dezakezula.

Etxebizitza beharraren galdeketa

Plan hori onartzeak interes handia sortu du etxebizitza beharrean dauden herritarren artean. Hori dela eta, hausnarketa prozesua bideratu nahi dugu herritarren artean, lehen etxebizitzaren beharrean dauden edota egun duten etxebizitza aldatu beharrean egon daitezkeen pertsonak edo familiak zenbat diren jakiteko.

Horretarako, aldizkariarekin batera galdeketa orria doa. Beraz, Itsasondon etxebizitza berri bat edukitzeko interesa duten guztiei datuak betetzeko eta galdeketa udalera ekartzeko eskatzen dizuegu. Epea 2010eko irailaren 30ean amaituko da.

Informazio gehiago nahi baduzue, deitu telefono zenbaki honetara: 943881170.■



Jubilatuen ibilaldi bat

Bizkaia: Lurra eta Itsasoa deitutako ibilaldia. KUTXAren laguntzarekin, irailaren 22rako antolatuta genduenez, goizeko zortzik eta laurdenetarako bildu giñan 43 jubilatu. Arritzekoa ez danez, adiñaren eragiñez, lau lagunek, izena emana eduki arren, ezin joan izan zuten.

Neska gazte bat gendun gidari eta autobusen ainbat itzegin zigun ikusten genduenaren berriak eta bitxiak azaltzen.

Bizkaian sartu orduko, bide zabalak utzi eta or joan giñan Ermuatik gora Trabakua gañera, bereala Lea-Artibai eskualdera sartzeko. Izena bertan diren bi errekei zor dio: Lea eta Artibai.

Lenengo geldialdia egin gendun Ziorza-Bolibar errixkan. Erri au 1969tik 2004 urteraño Markiñakin batuta izan zen, baña orain, berriz ere, antziñan bezela, bere jabe da. Zer gutxiago Simon Bolibar "askatzailearen" jatorrizko erria izan da! Erri biotzean, enparantzan, Simon Bolibarren irudi eder bat dago eta beste erriko seme batena ere bai. Irudi ortan adierazten dute 1527 urtean jai zala bere bosgarren aitona, Ameriketara joan zena. Bertantxe, erriko eliza (itxita zegoen), eta aldamenean kapera polit bat, Coromotoko Ama Birjiñari eskeiñia, Venezuelako zaindaria.

Aurrez erabakita genduenez, Simon Bolibar "Askatzailearen" museoa ikusi gendun. Garai bateko Errementarikua baserrian dago. Txikia da, bañan nola dena "Askatzaileari" eskeiñita dagoen, aundia ematen du. Bere jaiotza, Venezuelan 1783 urtean izan zan eta eriotza, Colombian, 1830n. Bere genealogia, ibilbide pertsonala eta politikoa, Europara egin zituen bi bidaiaren berri, liburuak, itzaldiak, garai artako diruak eta abar, bertako horma eta maietan ageri dira. Ikustekoa!



Jubilatuak Simon Bolibarren oroigarriaren aurrean.

Bereala amaiketakoa, txorixoa eta tortilla, ardo eta mostokin bustita noski.

Emendik, Santiago bidetik, 500 metrora, Ziortza (zear-otza) Zenarruza Kolegiatara. Au Oiz mendiaren iparraldean dago. Santiago bidean dijoazten egontokia da. Jan, lo eta beste bearretarako aterpea. Eliza berriz ikusgarria da. Gaur egun, Naparroko La Olivatik etorritako fraileraren arduran dago. Auetako batek agertu zizkigun istori eta argitasun guztik. Euskadiko Monumentu ofizialtzat aitortuta dago.

Bidaiari jarraituz Lekeitio aldera jotzen degu, bañan oraindik geldialdi bikain bat egiñez bidean; txakoli eta sagardoa egiten duten leku batera. Axpe sagardotegia du izena. Bertan bere maasti eta sagar arbolak erakutsi zizkigun (asko gañera) eta baita asko itzegin ere, ala adierazi zigun nola zaintzen diren, erabili, txakoli eta sagardo biurtu eta abar. Onena ordea txakoli eta txotxen dastaketa. Ordun sentitu gendin gustura gure barrena.

Lekeitio iritsi giñanean, autobusak, Egaña jatetxetik aparte antxen utzi giñuzten, kale estuetan ezin zuelako sartu. Ondo etorri zitzaigun apetitua irekitzeko. Bazkaria oso ona eman ziguten

eta zer jan gendun ez degu jarriko, bestela gaztek berriz ere gure inbiditan jarriko ditugu eta.

Arratsalde guztia Lekeitio oso ondo pasa gendun. Bertako gidari batek argitu eta erakutsi zigun. San Pedroren irudia, arrantzalen kofradi zarraren ondoan, ementxe ematen da katxarranka dantza entzunaren asiera. Etxe bikain asko ikusi ondoren, itsas ingurura. Portu aldetik Santa Maria Elizara, gotiko zoragarria, XVgarren gizaldikoa. Enparantza aundi eta eder bat, aurrez-aurre Udal etxea duela. Gero ondartzak ikusi: bertako Isuntza, eta aurreraxogo, Karraspio. Aurrez-aurre San Nikolas ugarte eta portuan solas ontziak arrantzakoak baño askoz geiago.

Eguraldi oso ona izan gendun, otxik ez eta eguzkirik baterez. Ibiltzeko ezin ohea. Eguzki ezak bear bada egingo zuen ez galtza motxik eta ez bikinik iñork ez jaztea. Gogo paltarik etzan ba izango!

Etxeatzeko garaian berriz lengo bidetik errira. Amabi orduko txangoa egin, batera ezbearrik gabe, umore onean eta beste bat egiteko asmotan; danok pozik.■

Ekainak 3

Aurten, Itsasondoko LHko ikasleak Zuhatzara joan gara, gau bat pasatzera. Ostegun goizean, Itsasondotik abiatu, eta Zuhatzako irla parean utzi gintuen autobusak. Bertan, txalupa bat genuen zain, beste ikastetxe bateko haurrekin batera. Denok igo aurretik, txaleko bat jantzi behar izan genuen. Berehala iritsi ginen uhartera.

Txalupatik jaistean, begirale batzuk zeuden gure zain, eta zenbait gauza esan zizkigun; hau da, gure kanpamendua 5.a zela, uretara joateko beti txalekoarekin sartu behar ginela...

Lehenengo ekintza pedaletan ibiltzea izan zen. Gogor eman behar zitzaion, bestela hura ez zen mugitzen. Ondo pasatu genuen, eguraldia ere primerakoa izan zen. Bazkalordua iristean, jangela handi batera sartu ginen. Haur pilo bat ginen, eta, horregatik, ikastetxeko bakoitzetik arduradunak genituen platerak zerbitzatzeko.

Horren ondoren, irlari buelta bat ematera joan ginen. Paseoan zehar, zirkuitu bat zegoen: eskalatzeko, sokatik igotzeko, enbor batetik pasatzeko... Bidean merien datu eta gure kanpamentura itzuli ginen; eta, han, aldatu eta uretara sartu ginen. Bero handia egiten zuen, eta ura, berriz, izoztuta zegoen.

Afaldu ondoren, untxiak harrapatzea joan ginen. Tranpa batzuk jarri genituen, baina alperrik. Oso ilun zegoen, baina bere begien distira bereiz zitekeen.

Ekainak 4

Goizean goiz jaiki, gosalduta eta surf edo wind surf egitera joan ginen. Haizeak urrutira eramaten zintuen, baina begiraleek emandako instrukzioekin moldatu ginen.

OSO ONDO PASA GENUEN. HURRENGO URTEAN ERREPIKATU NAHIKO GENUKE! ■



Bero asko egiten zuen eta uretan gustura ibili ginen.

Zuhatza

Lehenengo ekintza pedaletan ibiltzea izan zen.



Talde guztia surf egiteko prest.



Barkura igotzeko txalekoa jarri eta uharterako bidean.



Irlan zehar zirkuito bat zegoen eta horietako bat eskalada egitea zen.



Ikasleak auresku bat dantzatu zuten.

Maiteri agurra

Irakaskuntzan haurrak hezitzen gogor egin duzu lana bakoitzarengan goxotasunez utzia duzu aztarna gaur egun ere hasten badira gogoratu iragana seguru euren oroitzapenak doazela zuregana ta zu zarela gehienentzako beraien bigarren ama.

Udalekuak ere antolatzen sarri ibili zara zu lekuko dira Urdiain, Izkuie, Artakoz edo ta Izu. Herri hoietan, hemen bezala, arrastoa utzi duzu irakaskuntzan eta bizitzan bietan baitzara maisu ahaztuko ez diren mila balore irakatsi dizkiguzu.

Zuzendaritzan ta irakaskuntzan aritu zara jo ta ke sekula ere ez zara egon Itsasondotik aparte ta horregatik bihurtu zara gure bizitzaren parte ta irekita dauzkazu hemen bai bihotz ata bai ate nahi duzunean bisita egin, milesker bihotzez MAITE.



Gurasoak eskerrak ematen.



Irakasleak bertso bat eskeintzen.

2009-2010 ikasturtea gogotsu hasi genuen: hasieran, bi hezitzaile geunden; gero, hirugarrena etorri zen; eta, azkenean, laukotea osatu genuen, haurreskolako martxa aurrera eramateko. Bakoitza toki batetik etorria, esperientzia gutxiago edo gehiagorekin, ikasturte berriari eta leku berriari heldu eta haur berriekin lan egiteko gogoz!

Hasiera nahasi xamarra izan zen: haurreskola osatu egin behar izan genuen, jostailuak erosi, dena leku berrira egokitu... Baina, pixkanaka, guk ere lortu genuen egokitzea!

Ikasturtea aurrera joan ahala, gure paretxoak margotzea ere proposatu zigun herriko lagun batek! Hori poza umeentzat, paretak zuri eta grisa, egun batetik bestera, berde-berde eta animaliekin ikusi zutenean! Mila esker!

Ikasturte osoan, ekintza asko egin zituzten haurrek: galletak banatu, kantatu, ipuinak ikusi, margotu, eta, nola ez, esperimentatu! Zenbat body eta arropa zikin eraman duten etxera (pinturaz, txokolatez, jogurtez eta gelatinaz)! Ene, gurasoek barkatuko gaituzte... Nolanahi ere, haurrak pozik eta gozatzen ikusteko modu hobereana hori da... ZIKINTZEA! Eta dinamika berarekin segitzea aurrekusi dugu, aurreko esperientzia positiboa izan denez.

Gurasoekin harremana estutzeko ere ahaleginak ez dira falta. Horretarako, iazko ikasturtean bezala, aurreko hitzaldi batzuk prestatzea pentsatu dugu... Ea ondo ateratzen den!

Oporrak pasa dira, eta aurtengo ikasturtea 17 haurrekin hasiko dugu! Baina, irailean, beste matrikula epe bat zabalduko dugu. Beste sei haurrentzako tokia dago oraindik; beraz, nahi duena etorri dadila informazio eske. Hemen egongo gara zain! ■



Haurrek material ezberdinekin esperimentatzen dute.



Landareak ureztatu behar dira.

Aurreko kurtsoari tamaina hartuta, kurtso berriari ekiteko prest!

Haurreskolako umeak landaketa lanetan.



Gotzon Izquierdo

Langile kualifikatu eta artista paregabea

Urte asko daramatza gure artean, eta herrian oso maitatua da Gotzon, baina bere baitan badauka artista sen izugarria, herriko jende askok ezagutzen ez duena, artista paregabea baita. Haurra zenetik aritu da marrazten, tailatzen... atsedetik hartu gabe. Azken urte hauetan, Itsasondo gaitzat hartuta, lan txukunak egin ditu, eta herria irudikatuta utzi nahiko luke.

Gotzonek bere etxean hartu gintuen.

Zenbat denbora daramazue Itsasondon?

Aurtengo irailean, hogeita zortzi urte egingo ditu Itsasondora etorri ginela.

Nolakoak izan ziren zure hasierak?

Umeetan, Arrigorriagako baserri batean bizi ginen gure amonarekin -euskalduna zen-, baina, halako batean, Bilbotik Burgosera doan autobia egin behar zuteenez, baserria desjabetu ziguten, eta Bilbora joan ginen bizitzera.

Niri betidanik gustatu izan zait marrazkiak egitea, eta, zortzi urterekin, lehen saiakerak egiten nituen. Bilboko auzo batean, Txurdinagan, Gorka Uriarte jaunarekin aroztegiko lanak ikasi nituen, eta, hamalau urte nituela, Jose Ugaldek zuen zurgindegia batera joan nintzen lanera. Bertan, urte dezente eman nituen lanean, soldaduskara joan arte, eta han teila-tu batetik bota nuen neure burua, bertan ez egoteagatik.

Teilatutik salto egin zenuen?

Bai. Soldaduska Madrileko Colmenar Viejo egiten ari nintzen, eta ez nengoan batera gustura; beraz, teilatutik salto egin, hanka apurtu eta Madrileko ospitalean egon nintzen denbora batez, handik Bilbora bidali ninduten arte. Gauzak horrela, etxean pasatu nuen soldaduska guztia; gainera, Bilbora etortzean, Luzi ezagutu nuen.

Zurgindegia horretatik, nolatan pasatu zinen RENFE lan egitera?

RENFEk oposaketa batzuk atera zituen arotz aritzeko, baita elektrikari, igeltsero... ere -gaur egun, lan guzti horiek beste enpresa batzuek egiten dituzte-. Oposaketa haietan, sei mila lagun inguru elkartu ginen, eta, arotz lanerako, hamalau plaza bakarrik zeuden. Nik haietako bat lortu nuen, eta, horren ondorioz, Donostiara joan nintzen lanera; hala ere, segituan pasa ninduten Brinkolara, Donostiako tailerra itxi egin zutelako. Gaur egun, ez da arotz lanik egiten, eta RENFEko lanetako arduraduna naiz.

Hasieran, Donostiara joan zineten bizitzera?

Ez, zuzenean Itsasondora etorri ginen. Lehenik, Beasainen egon ginen bi hilabetez bizitzen, baina, horren ondoren, Iraolako Gabinak Goiko kalen alokairuan zeukan etxera joan ginen bizitzera. Handik, Beheko fabrikako etxera pasa ginen, eta, azken urteetan, beheko kaleko etxe berrietan bizi gara. Ni Itsasondon geratzera bultzatu ninduen arrazoietakoa bat euskara ikasteko aukera edukitzea izan zen, bane-kielako Bilbon geratzuz gero ez nuela aukera hori izango. Eta hemen bai, banuen.

Jende askok ez du ezagutzen daukazuen artista sen hori. Nondik datorkizu?

Berezko zerbait da, umetatik gustatu zaidan gauza bat izan da, zortzi-hamar urterekin lehenengo marrazkiak egiten nituenetik. Gogoratzen dut nire lagun Avelinorekin marrazteko tresnak hartu eta Karrantza aldera joaten ginela. Abel Urbina izena zuen bizilagun batek asko irakatsi zidan marrazten; bera marrazkilari profesionala izanik, Bilboko zinetako kartelak marrazten zituen. Hortik aurrera, nire kontura aritu naiz ikasten, gehienbat oleoa erabiliz, akuarelarekin ez bainaiz hain trebea.

Tailatzearen asuntua geroago etorri zitzaidan, Ugalde zurgintzan lan egiten nuenean. Han, altzari asko egiten genituen irudiekin, armarriekin... eta horrela hasi nintzen nire kontura tailatzen.

Egiten dituzun irudi eta marrazkiek arrazoi bat daukate?

Ez, berez ateratzen zaidan gauza bat da, ez dut pentsatzen edo meditatzen. Gauza bat gustukoa dudanean, egin egiten dut eta listo, besterik gabe. Niretzat jobi bat bezalakoa da, eta denboraldi batean gauza batzuk lantzeko ematen dit eta beste batzuetan beste batzuk; gainera, denboraldi bat pasa dezaket ezer egin gabe ere.

Gustukoa duzu zure lana eraberritzea?

Bai, asko. Orain, esaterako, arbelarekin irudiak egiten ari naiz, eta marrazkiekin formatu txikiak egiten ditut. Beti gustatu izan zait nire lana berritzailea izatea eta ez gauza konkretu batean gelditzea. Horrela, egurra tailatzerakoan, material ezberdinekin lan egin izan dut: pagoa, haritza, gaztainondoa, pinua, platanoa... Denak egur nobleak dira, baina tailatzeko garrantzitsua da adarrak ez edukitzea.

Inoiz lehiaketaren batean parte hartu duzu?

Bai. Adibidez, RENFEk antolatzen dituen lehiaketetan. Horietako bat argazkiaren izaten da, eta horretan ere parte hartu izan dut, baina arrakasta gutxiarekin. RENFEko beste lehiaketa batean, finalera iritsi nintzen, trenbidean aurkitu nuen soldadura eta harriekin eginiko eskultura arraro batekin. Hori ere gustukoa dut, hau da, trenbidean aurkitzen ditudan irudi edo eskultura arraroak ere jasotzea, batzuk oso politak baitira.

Lehiaketa horietan edo horietatik kanpo, baduzu harremanik zure tankerako jendeekin?



Gotzon harria lantzen.

Bai, eta horietako bat nirekin RENFEn dudana lankide bat da. Kasu horretan, ni aritu nintzen berari tailatzen irakasten, eta orain izugarriko artista egina dago.

Horrez gain, "Kilometroak" batean Jaso izeneko tailatzailea ezagutu nuen, eta izugarriko artista da: denetik egiten du, eta berarekin oso harreman ona daukat.

Beraz, zuri jendeak lagundu dizu, baina zuk ere irakatsi diezu beste batzuei?

Bai, eta Itsasondora etorri eta berehala, Maite eta Joxe Mari irakasleek herriko eskolan haurrei tailatzen irakastea proposatu zidaten, eta gustura aritu nintzen bi urtez.

Erakusketarik egin duzu?

Bai, dezente aldiz. Esaterako, Itsasondon, behin baino gehiagotan; Ordizian, Palazio Barrenan; Erreterian; Araman; Legazpin... eta "Kilometroetan" ere parte hartu dut erakusketen bidez, bai Beasainen, bai Ordizian. Taberna batzuetan ere egin ditut erakusketak; esaterako, Alegian eta Itsasoko Ostatuan. Hotel Londresetik ere deitu zidaten erakusketa egiteko, baina, itxaron zerrenda luzea zenez, pasatu egin zitzaidan.

Herrian eginak dauzkate erakusketak, Kultur Astean adibidez, baina gustatuko litzaidake Kaxintane tabernan egitea, hori delako herriko jendeak nire lanak ikusteko modu egokiena.



Saltzen dituzu zure arte lanak?

Normalean ez, baina tailatutako gehienak salduta dauzkat. Inoiz egin izan dut enkarguz lanen bat; adibidez, Legazpiko Urkitar batzuei erakusketa batean Urkiko marrazkia gustatu eta beraiei berri bat egin nien, marrazki hura Urkiko Joxe M^o Artzari oparitzeko bainean. Baina arte lan gehienak, saldu baino gehiago, oparitu egin ditut.

Egin duzun lanik zailenetakoa?

Orain oroitzen dudana hau da: Joxe Mendizabalek bere seme Eustakio "Txikia"-ren aurpegia egiteko eskatu zidan, eta nik egingo nuela esan nion, baina gogorarazi nion sekula ez nuela aurpegiarik tailatu, eta, egia esan, asko kostatu zitzaidan, baina egin nuen. Joxek esan zidan: "Ni hilko naiz lan hori bukatzerako". Eta horrela izan zen, ez zuen bukatuta ikusi, eta pena handia eman zidan. Horren ondoren, omenaldi batean bere emazteari eman nion.



Egin duzun lanik berezi edo kuriosoenena?

Azken aldian, RENFEko plaka antzeko batzuk egiten ditut. Plaka horiek trenbide lanetan aritzen garen herrietan ipintzen ditut, eta bertan agertzen dira lanetan parte hartzen duten enpresak, noiz hasi diren lanak, noiz bukatu diren, Euskal

Herriko mapa eta ikurrina. Nire izena ere ipintzen dut. Plaka horiek arbelean, egurrean eta ormigoitan egin izan ditut, eta, esaterako, Urnietako, Anoetako, Ikaztegiako, Otzaurteko estazio barruetan daude.

Horrez gain, akordatzen naiz Otzaurteko ostatua marrazteko eskatu zidatela, eta, asko gustatu zitzaizenez, galdetu zidaten bertako menuetako kartaren azalean ipintzen utziko nien, eta, gaur egun bertara joaten bazarete, Otzaurteko Ostatuaren marrazkia ikusiko duzue, eta, azpian, nire sinadura.

Horrez gain, herrian, Urkiko Saltxeberri baserria marraztu nuen, eta, horren ondoren, bertakoek eskatu zidaten hildako oroigarrian ipini nahi zutela, eta, seguruenik, herriko jende gehienak izango duzue oroigarri hori etxean.

Zure lanak egiterakoan, nola aukatzen dituzu irudiak?

Berez, ez ditut aukeritzen; batzuetan, denbora libre dudanean, nire kaballeteak hartu, eta hortik zehar joaten naiz marraztera Olaberriera, Larraitzera... Eta, kanpora oportetara noanean, blok bat eramaten dut, gustukoa dudana irudia marraztu eta gordetzeko. Kasu horretan, lehenengo, kopia edo zirriborroa egiten dut, eta, horren ondoren, etxera etorritakoan, hobetu egiten dut, baina sekula ez dut aldatzen hasieran jasotako irudi hori.

Beste elkarrizketarik egin dizute?

Bai; adibidez, RENFEko "Lineas" aldizkarian, "El Diario Vasco" egunkarian, "Egin" egunkarian eta beste aldizkari batzuetan ere.

Zenbat denbora pasatzen duzu zure arte lan batekin?

Normalean, ez naiz lan batean jarraian aritzen, eta lanaldiak deskantsuekin tartekatzen ditut, baina, arte lan jakin batekin jarraian arituz gero, lasai-lasai, hilabete bat-edo beharko nuke.

Horrez gain, baduzu beste jobirik?

Athleticeko jarraitzaile izatea, jajajajaja. Beno oso gustukoa dut sukaldaritzan, eta nire koinatu Jesusekin lehiaketa askotan parte hartu dut, Bilboko Aste Nagusian batik bat. Baina Bizkaia guztiko lehiaketetan parte hartzen genuen, eta, gehienetan, lehenengo edo bigarren saria eskuratzen genuen.

Eta orain, bukatzeko, hiru galdera motz.

Zer duzu gustukoen Itsasondon?

Dena, lagun oso onak egin ditut, eta Itsasondoko jende guztiarekin oso ondo moldatzen naiz.

Zeren falta sumatzen duzu Itsasondon?

Norbait joaten denean.

Inoiz izan duzun amets bat?

Athleticeko jokalaria izatea. ■

gizartea

Laguntza teknikoak



Laguntza horien helburua da pertsona ezgaituei edo ezinduei behar duten laguntza ematea, eguneroko jardueretan moldatzeko eta autonomo izateko.

Laguntza teknikotzat hartzen da pertsona ezgaitu batek bere urritasuna edo ezgaitasuna prebenitzeko, konpentsatzeko, arintzeko

edo kentzeko erabiltzen duen produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro.

Kontzeptu horrengatik, honako laguntza hauek ematen dira:

- **Mugitzeko laguntzak:** gurpildun aulki elektrikoak, gurpildun aulki bereziak, ibilgailua egokitzea, ibilgailua erosteak, altzari egokituak, garbitu eta bainatzeko osagarriak, eskailerak igotzeko eta batetik bestera eramateko aparatua.
- **Irisgarritasuna hobetzeko laguntzak:** etxean sartzeko eta etxea egokitzeak.
- **Komunikaziorako laguntzak:** entzuteko protesiak, inguruaren kontrolako sistemak, beste pertsonekin komunikatzeko gailuak eta software nahiz hardware egokituak.

Zerbitzuaren bitartez jasotzen diren laguntza teknikoak bi eratakoak dira:

- **Berreskuragarriak:** onuradunek eskutik eskura alda ditzaketenak eta leku batetik bestera eramateko garraio kostua besterik ez dutenak. Erabiltzailea ez da inoiz laguntza horien jabea izango; erabiltzeko eskubidea baino ez du izango. Jabea Gipuzkoako Foru Aldundia da, eta sistema bat ezarriko du erabiltzeko moduan dagoen materiala eskatzen duten pertsonen izateko; betiere, horretarako aukera badago eta pertsona horien ezaugarriak eta baldintzak kontuan izanda.
- **Berreskuraezinenak:** beren ezaugarriengatik ezin daitezkeenak eskutik eskura aldatu eta, beraz, eskatzaile bakar baten zuzentzat edo, inoiz, aldi berean bat baino gehiagorentzat direnak. Laguntza tekniko berreskuragarriak erabiltzeko egin behar den obra zibila ere ez da berreskuragarria izango.

a) Laguntza tekniko **berreskuragarriak** onartu eta une horretan biltegian halakorik ez badago, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontuan adierazitakoaren %100 ordainduko du.

b) Laguntza tekniko **berreskuraezinen** kostua Gizarte Politikarako Departamentuak eta onuradunak batera ordainduko dituzte, ezarritako baremoei jarraituz.

Betebehar orokorrak: Eskaera egiten duten guztiak honako hau egiaztatu beharko dute:

- Gipuzkoan errolatuta egotea.
- %33ko edo gehiagoko ezgaitasuntasun maila izatea edo menpekotasuna izatea.

Eskaerak eskatzailea bizi den herriko oinarritzko gizarte zerbitzuetan aurkeztu behar dira.■

Haur eta gazteria saila

Gazteen uda kanpaina

Aurtengo udaran, Itsasondoko gazteek ekintza desberdinak egiteko aukera izan dute. Hiru ekintza egin dituzte. Alde batetik, Larraitzetik abiatu eta Amezketara bidean dagoen pareta batean eskalada egin zuten. Bertan, abentura eta kirola uztartuz, herriko bederatzigarren gazteek goiz ederra pasatzeko parada izan zuten.

Gamarrara ere egin genuen txangoa, eta egun pasa joan ginen igerilekuetara. Aurten ere, eguraldiak ez zigun lagundu eta goizean uretan ibili ondoren, hotza zela-eta merkatalgunera gerturatu ginen. Bertan bazkaldu eta gauza desberdinak ikusten ibili ginen arratsaldean itzuli ginen arte.

Azkenik, gaztelekua apur bat apaintzearen, graffiti tailerra antolatu zen, eta marrazki politikak egin genituen, gaztelekuari itxura berri bat emanez. Bertan, makarroi jana egin eta, horrekin batera, amaitutzat eman genituen aurtengo ekintzak.

Udako ekintzetan, 11-17 urte bitarteko 9 gazte hartu dute parte, eta haien esanetan oso gustura ibili dira. Hain zuzen ere, beraiek erabaki zuten zer egin nahi zuten, eta horrek ekintzen arrakasta ziurtatu zuen.

Gaztelekuan ikasturte berria

Irailaren 10ean, udako atsedena egin eta gero irekiko dituzte gaztelekua berriro ere ateak. Aurten ere, 11-17 urte bitarteko Itsasondoko nerabe eta gazteek ekintza desberdinak egiteko aukera izango dute: tailerrak, jolasak, eskulanak, irteerak... Aurten, aldaketa batzuk datoz. Izan ere, proiektua hasi zenean, gaztelekua 12-17 urte arteko nerabe eta gazteei zuzenduta zegoen. Ikusirik horiek erabilera eskasa egin dutela, adin tartea 11 urtera jaitea erabaki zen, herriko beste nerabe batzuek ere aukera izateko gaztelekua erabiltzeko. Gogorazten dizuegu Itsasondoko Gaztelekua ostiraletan irekitzen dugula, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Etorri gurekin, gazte!

Ekintza berriak gazteentzat eta haurrentzat

Gaztelekuaz gain, Itsasondoko Haur eta Gazteria Sailak, ikastaro eta ekintza berriak egin nahi ditu ikasturtean zehar, nerabe eta gazteek egin dituzten eskaerei erantzuteko. Momentu honetan, hainbat aukera aztertzen ari gara, eta, eskaintzak eskura ditugunean, herriko gazteei izena emateko aukera emango dugu. Haurrentzako ekintza gehiago egiteko asmoa ere badugu. Gabonetako eta Aste Santuetako ekintzek izan duten arrakasta ikusita, modu horretako ekintza gehiago egiteko asmoa dugu. Herri bizitza taldean erabakiko da.■



Gazteek graffitiak marrazten.



Gaztelekuan egindako graffitiaren aurrean.

1.

*Oporretara joateko
asmorik ba al dezu? Nora?*

2.

*Zer eskatzen diozu
oporrei?*

3.

*Pasa dituzun oporrik
hoberenak zein izan
dira? Zergatik?*

4.

*Oporretara joateko
ametsetako lekurik
ba al dezu?*



MAITE IRASTORZA

1. Bai, Portugalera.
2. Ondo pasatzea, deskantsatzea eta leku berriak ezagutzea.
3. Beti gustura ibili izan naiz.
4. Bai, Eskandinaviako lurraldeak



LURDES ARANBURU

1. Ez, aurten bertan geratuko naiz oporretan.
2. Lasaitasuna eta lanetik pixka bat deskonektatzea.
3. Asturiasen. Lekua bera zoragarria delako eta ederki pasa nuelako.
4. Bai, Marokora.



M^a JOSE ETXEBERRIA

1. Ez, aurten hemen geldituko naiz.
2. Gustura pasatzea eta lasai egotea.
3. Tunisian oso ongi pasatu nuen eta asko gustatu zitzaidan.
4. Irlandara.

Arbelaren ustiapena bere ezaugarri fisikoeekin lotuta egon da hasieratik. Izan ere, harri erabilgarria da arbela, harlauzetan erraz esfoliatzen dena. Gainera, propietate termiko eta isolatzaileak ditu; hori dela eta, hainbat erabileratarako baliagarria izaten da. Urteetan, eskola arbelak eta arbeltxoak ez ezik, beste produktu batzuk ere egin dira arbelaz: plaka elektrikoak, kafea eta kakaoa txigortzeko plakak, txizatokiak, eskailera-mailak eta billar-mahaiak, besteak beste.

Beste ezaugarri bat ere badu arbelak, baina. Harri biguna eta hauskorra da, aise apurtzen dena. Meategitik ateratzeko, beraz, ezin da lehegailurik erabili, beste harri mota batzuk erauzteko erabiltzen den moduan; ez haustekotan, mailuz eta ziriz atera behar da arbela. Itsasondon,

gainera, beste leku batzuetan ez bezala, lur azpian daude arbel-zainak. Hala, arbelaren ustiapena ez da harrobietan egin, meazuloetan baizik: Azubin, Malkorren, Izarren... lurpeko galeriak zabaldu izan dira arbela lur-erraietatik ateratzeko.

Erauzteko teknikari dagokionez, hiru aldi egon dira Itsasondoko meategien historia: lehena, 1870etik 1920ra, arbela eskuz ateratzekoa; bigarrena, 1920tik 1950era, mailu pneumatikoz ateratzekoa; eta, azkenik, 1950etik meategien itxiera arte –hau da, 60ko hamarkada arte–, arbel-lauzak mozteko altzairuzko helize-haria erabiltzekoa. Aldaketa tekniko horiei lotuta, energia eta elektrizitate iturrien garapena egon zen: 20ko hamarkadan hasi zen elektrifikazioa Itsasondoko meategietan. Horretarako, konpresore-etxeak

Arbela, lur-erraietatik tailerretara (II)

Aurrekoan, arbel-lanaren jatorriaren berri eman genuen.

Atal honetan, berriz, arbel-lanaren beraren gainean

arrituko gara; hau da, aztertuko dugu zer-nolako


teknikak erabili zituzten, urteetan zehar, arbela erauzteko,

bai eta harria fabriketan nola lantzen zuten ere.

Hala, arbelgintzaren historia dela medio, Itsasondoren

historia industrialia osatuko dugu, XX. mendean

gertatutako aldaketa teknikoak azalduz.



Hasierako lana eskuz egiten zuten; laster, ordea, arbela mozteko eta lantzeko makinak iritsi ziren tailerretara.

eraiki zituzten galerien sarreretan, elektrizitate sortzeko generadoreak eduki zituzten.

Meategietako antzinako lankide batzuek gogoratzen dute euren lana oso zaila zela. Eskailera erraldoien moduko meategiak (3,5-4 metrokoak) zulatzen zituzten arrokari. Han, lur azpian, arbel-zainak bertikalean egoten ziren. Beraz, lubakia egin behar zuten zainaren aurrean, meatzariek arbela erauzteko lekua izan zezaten. Lubaki horiek zulatzekeo bai, erabiltzen zituzten lehergai-luak. Ostera, 40 zentimetroko pitzadura egiten zuten arbelean, eskuz; hortxe jotzen zuten mailuz eta ziriz, arbel-blokeak ateratzeko. Blokeak handi samarrak izaten ziren, hiru metroko zabalerakoak; hori zela eta, katu hidraulikoen bidez altxatuta, zurezko habeekin finkatzen zituzten. Langileak, orduan, eskuko zerrekari aritzen ziren: blo-

kea mozten zuten, lehenengo zatiak egin eta fabrikara eramateko.

Lehendabiziko lanak, beraz, meategian bertan egiten zituzten; era horretan, errazagoa zen arbel-blokeak garraiatzea. Are gehiago, arbel-blokeak mozteko, kontuan hartzen zuten langileek zer egingo zuten lauzeekin, eta tamaina handiagoko piezak mozten zituzten, meategitik ateratzean apur ez zitezen. Hortik aurrera, bitan banatzen zen prozesu produktiboa: alde batetik, pieza txikiak (arbeltxoak, batez ere) meategien ondo-ondoan zeuden tailerretan lantzen zituzten; beste alde batetik, pieza handiagoak eta konplexuagoak herrian zeuden fabriketan egiten zituzten.

Zergatik banaketa hori? Arrazoi praktikoengatik, gehienbat. Izan ere, Itsasondok ez zuen garai hartan lekurik fabrika handi

bat eraikitzeko. Ezinezkoa zen, hortaz, prozesu osoa leku berean garatzea: bizpahiru tailerretan banatu behar izan zuten lana enpresariak. *Echeverría, Luluaga y C.ª* enpresakoek pabilioi bi zituzten: "Goiko Fabrika" zeritzona, Azubin bertan, meategien alboan; eta "Beheko Fabrika", herrian. Sarasolatarrek, aldiz, hiru fabrika zituzten: bat Izarren, Fabrika Zaharra, arbeltxoak eta arbel-arkatzak egiteko; beste bat Beheko Kalen, eskola-arbelak, koadro elektrikoak, billar-mahaiak... egiteko; eta hirugarren bat Ibarren, arbeletarako egurrezko markoak lantzeko.

Meategi eta fabrika horien arteko garraioa mota askotarikoa izan da Itsasondoko arbelgintzaren historian. Dena den, bi izan dira garraio bide nagusiak, gaingiroki: meategietatik tailerretara, bai bagoietan, bai aire-kableen bidez; tailerren artean, berriz, errepidetik garraiatzen zituzten produktuak –hasieran, astoz; eta, urteak igarota, kamioiz-.

Fabriketan ere teknika ezberdinak erabili izan dira arbela lantzeko. Hasieran, lan gehienak eskuz egiten zituzten: lauak zizelez esfoliatzen zituzten, eta marrusketa leuntzen zuten harria. Geroxeago, eskula mekanikoa erabiltzen hasi ziren, arbela lantzeko, baina artean ere eskuz leuntzen eta bernizatzen zituzten arbelak. Urteak pasata, teknika berriak ezartzen saiatu ziren, marmola mozteko erabilitakoen antzekoak; baina, horrela, material gehiegi galtzen zuten, eta bertan behera utzi behar izan zituzten. Gauzak horrela, 50eko hamarkadan azkeneko berrikuntza sartu zen: diamantezko zerrak. Horiei esker, materiala ez zen apenas xahutzen, baina desabantaila nabarmena zuten: garestiak ziren.

Arbela lantzeko, sei langile behar ziren: lau gizon eta emakume bi. Normalean, gizonak zerra-lanetan aritzen ziren; emakumeek, berriz, arbela lixatu, akabera eman eta moztu egiten zuten. Meategitik ekarritako harria zerra mekaniko handi batez mozten zuten; orduan, bigarren zerra batetik pasazten zuten, neurri egokia emateko. Lauzak zizelez ateratzen zituzten, eta, gero, xaflatik pasatzen zituzten, beharrezko lodiera lortu arte. Gero, emakumeek lixatzen zituzten, eta, artazi erraldoiekin, azkeneko mozketa egiten zioten. Prozesua bukatzeko, bernizatu eta egurrezko (normalean, pagozko edo platanozko) markoak doitzen zituzten.

Urteak igaro dira Itsasondoko azken arbela egin zenetik. 70eko hamarkadaren hasierarako arbel-fabrikak itxiak ziren. Han egindako lan guzti horien aztarnek, ordea, herriko memorian diraute, bai itsasondotarren oroitzapenetan, bai paisaian eta kaleetan. Hurrengo artikuluko batean memoria horiei buruz arituko gara.■

Ainara Martínez Maitia



Arbelak, arbeltxoak, plaka elektrikoak...
Produktu ugari ekoizten zituzten
Itsasondoko arbel-fabriketan.



Lehendabiziko arbel-lana meategian bertan egiten zuten. Gero, arbel-blokeak garabien bidez ateratzen zituzten, tailerretara eramateko.

Itsasondoar askok gogoan izango dituzte udalekuetan pasatako oporraldiak. Hogei egunez, eskolatik eta etxetik urrun, erlojurik gabe ondo pasatzeko egunak ziren haiek. Hiru hamarkada baina gehiagoko bidea egin bazuten ere, badira 13 urte abentura hura amaitu zenetik.

Herritarren eta batez ere guraso askoren lanari esker, aurrera egin zuten udalekuek, eta ugari izan dira bertan egon diren Itsasondoko nahiz beste herri batzuetako neska-mutikoak. Maite Olazabal izan zen udalekuen sortzaileetako bat, eta berari egokitu zitzaion haur talde handi haiek gobernatzeko lana. Bere etxean, argazki zaharrei begira egin dugu elkarrizketa.

Udalekuak, amets lekuak

Noiz eta nola sortu ziren udalekuak?

Ikastolaren sorreran, ordura arte eskolak markatzen zuen bide estua utzi, eta pedagogian eta dinamikan aldaketa batzuk egin nahi izan ziren. Ordurako zenbait herritan horrelako gauzak egiten hasiak ziren, eta gu ere hasi egin ginen. Eta hala, Urdiainera joatea erabaki genuen. Lehenengo urtea benetako abentura bat izan zen. Igerilekuaren inguruan zegoen lursail batean, baserri huts batean egoteko baimena eskatu genion artzain bati, eta hantxe egon ginen. Han ez zegoen ez urik, ez argirik, ez ezer. Sukalde zahar bat zegoen, eta besterik ez. Pentsa, ganbaran lo egiten genuen! Dena den, esperientzia politenetako bat izan zen, primeran pasatu baikenuen ezer izan gabe.

Ondo pasatzeaz gainera, zein zen udalekuak antolatzearen helburu nagusia?

Euskal giroan egun batzuk pasatzea. Euskara erabiliz ongi pasatzea.

Urdiainen egin zenituzten lehen urteak, baina, herriz herri mugitu behar izan zenuten gero.

Bai, lehenengo urtean primeran pasa genuen, baina, hurrengo urteetan ezin genuela horrela ibili erabaki genuen. Artzain baten baserri bat aurkitu genuen, eta han lau bat urte pasa genituen. Handik aurrera, herriz herri ibili behar izan genuen etxe bila. Hasieran, Asiainen aritu ginen galdezka, baina, han ez zegoen guretzat aproposa zen ezer, eta, gero, Izura joan ginen. Han esan ziguten eskola izandakoa hutsik zegoela, baina etxe hartan sartzeko herri mailako bilera batzuk egin behar izan zituzten, eraikina herriarena zelako.

Bilera haietan batzuk oso kontra agertu ziren: "Aquí vienen los vascos" esaten zuten mesfidati. Alkateak eta emazteak, ordea, babes handia eman ziguten, eta, azkenik, etxe hartan sartzea lortu genuen. Gerora, herritarrek ikusi zuten haurrek ez zutela arazorik sortzen, herria errespetatzen zutela. Hala ere, beti errezeloz hartu gintuzten, eta beti izaten genituen komeriak baimena eskuratzeko, beti ibiltzen baitziren aitzakien bila. Azkenik, Izuko eskolako etxea enkantean jarri zuten, eta familia batek erosi zuen. Hortaz, berriro etxerik gabe geratu ginen! Haren ondoan zegoen Florentino artzainaren etxea, oso egoera kaskarra zuen, baina, hantxe jartzea pentsatu genuen. Etxe hartan ere egin genituen urte batzuk, hura ere salgai jarri zuten arte. Ingurua ezagutzen genuenez, ondoko herrira joan ginen, eta, hala, Artazkozera iritsi ginen. Alkatearen etxean egon ginen urte askoz, hura ezkondu zen arte. Ezkondu eta etxe hartara bizitzera joatekoa zenez, berriro ere etxe bila hasi behar izan genuen. Eta handik hurrengo herrira, Izkuera joan ginen. Han ere jakina, konponketa eta txukunketa lan handiak egin behar izan genituen.

Izkuen ere oso gustura egon ginen urte batzuek, baina, gu geunden etxea nekazal txiki moduan egokitu nahi zuten. Oso zaila zen guk nahi genuen moduko beste bat lortzea. Kontuan izan urtean hiru astez alokatzeko etxe bat behar genuela; gainera, urtean zehar materialak bertan uzteko aukera izan behar genuen eta alokairuak mer-



Diego, Borja, Lander, Dani eta Zugaitz. Izuko erreka bazterrak aproposak ziren jolasean aritzeko.

kea izan behar zuen... Bestalde, jasotzen genituen diru laguntzak ere asko murriztu ziren, eta begiraleentzat tituluak eskatzen hasi ziren. Azken batean, dena konplikatuz joan zen, eta, azkenean, ez genuen beste irtenbiderik izan: Izkuen bukatu zen udalekuen abentura.

Maite, konta diezaguzu eguna nola pasatzen zenuten.

Egunaren antolamendua bezperatik hasten zen. Gauean, ekintza desberdinak proposatzen ziren: jokoak, irteerak... Etxeko antolamendurako, taldeak egiten ziren adin desberdinetako haurrekin. Talde bakoitzak bere eginkizuna zuen: batzuk gosariak arduratzen ziren, beste batzuk bazkariak, afariak, etxeko txukuntasunaz edo gaueko jolasak antolatzeaz.

Gosaria antolatzea egokitzen zitzaion taldeak gosaritarako ontziak jarri, jaso eta garbitu behar zituen. Bitartean, beste talde batek gelak txukuntzen zituen. Lan horiek egindakoan, eguerdiera arte bezperan erabakitako jokoetan jolasean aritzen ginen edo errekarara joaten ginen. Gero, bazkaldu eta haurrek siesta egiten zuten. Arratsaldean, eskulan batzuk edo plastika lan batzuk egiten genituen, eta jolasean aritzen ginen edo errekarara joaten ginen, afaltzeko garaia iritsi bitartean. Afaldu aurretik, egunaren azterketa egiten genuen: zer atera zen ondo eta zer ez baloratzen genuen guztien artean. Bilera amaitu ostean, afaldu eta eguna gaueko jolasekin amaitzen genuen.



unen oroigarria.



Izuko etxe aurrean ateratako argazkia.



Irudimena eta umore ona ez ziren falta gaueko jolasetan. Argazkian Eider, Igor eta Aniz.

Gaueko jolasekin ondo baino hobeto pasatzen zenuten, ezta?

Jolas horiek bereziak ziren, gauak berak berezko xarma du, eta, haurra zarenean, askoz ere gehiago. Jolas horiek oso garrantzitsuak ziren haurrentzat, eta helduontzat ere bai. Egia esateko, haurrek lan handia hartzen zuten jolasak prestatzeko, irudimena asko lantzen zuten, eta oso ondo pasatzen genuen guztiok.

Inguruko herrietara ere irtenaldiak egiten zenituzten, ezta?

Bai, ez dugu ahaztu behar helburuetako bat ingurua ezagutzea zela. Asiain, Ibero, Etxauri, Arazuri, Oltza eta inguruetara joaten ginen. Iruñeko Takonera ezagutzera edo Artetako museora ere joan izan ginen, behin edo behin.

Haurrak Etxaurira noiz joango zain egoten ziren, han primeran pasatzen omen zuten eta.

Bai, baina, igerilekura batez ere garbitasunagatik joaten ginen. Udalekuetako etxe gehienetan ez zegoen dutxarik, eta, nahiz eta askotan errekan ibili, dutxatzea ere beharrezkoa zen. Etxaurira joan eta ondo pasatzeaz gainera, garbitasunaren arazoa ere konpontzen genuen. Dena batera egiten genuen!

Hori bai, Etxaurira joan aurretik, lan asko egin behar izaten genuen. Dena eginda eramaten genuen: bazkaria, merienda... Eta, noski, horretarako erosketak egin behar izaten genituen, janaria prestatu, platerak eta gainontzekoak eramaten... Lan handia ematen zuen, baina, emaitzak merezi zuen, oso ondo pasatzen genuen-eta.

Igande goizetan jantokia eliza bihurtzen zen.

Bai, lñakik meza ematen zuen, eta uda-

leketan egiten genituen balorazioak kontuan izaten zituen; nolabait esatearren, koordinatuta egindako meza izaten zen. Egunaren errepasoa egiterakotan, zertan hobetu behar genuen aztertzen genuen, eta, gero, gai horren inguruan gogoeta egitera gonbidatzen gintuen lñakik mezetan. Azken batean, helburua taldea sendotzea eta ikamikak ekiditea zen.

Erraza al zen begiraleek eta sukaldariak baietz esatea?

Batzuetan, baiezkoa jasotzen genuen, eta, beste askotan, ezezkoa ere bai. Maiz, mesede eske joan behar izaten nuen. Batzuetan, oso sentsazio onak bizi izan nituen, baina, baita bestelakoak ere.

Sukaldariekin eta begiraleekin izandako harreman ona oso aberasgarria izan da niretzat, giro oso ona sortzen baitzen gure artean; eta hori ez da izan urtebete kontua, urtez urte egin zen zerbait izan da.

Gurasoek denetariko lanak egin zituzten, ezta?

Urdiainen hasi eta gainontzeko herri guztietan ere lan izugarria egin zuten, eta musu-truk, gainera. Bi edo hiru aste-buru lehenago joaten ziren etxea garbitzera eta txukuntzera, eta denetarik egiten zuten: batzuek igeltsero lana, beste batzuek arotzarena... Hura benetako auzolana zen. Gerora ere, udalekuek iraun zuten bitartean, guraso batzuek erosketak egiteko ardura ere hartzen zuten.

Bestalde, asko eskertu behar ditugu herritarren opariak. Esate baterako, Manu, ekonomatoko arduraduna zen, eta haren bidez gauza mordoa lortzen genuen. Manuk enpresetako agente komertzialei gauzak eskatzen zizkien,

eta produktu asko ematen zizkiguten, dohainik. Esate baterako, kontsumitzen genituen arrautza guztiak Idiazabalgo San Blasek ematen zizkigun. Opariei esker, lñakik bere autoa gauzez beterik eramaten zuen beti.

Maila pertsonalean, zer eman dizute udalekuek?

Batzuek kritikatuko ninduten, baina zerbait eman dudala uste dut, herriari egin diodan aportazioetako bat dela uste dut.

Askotan pentsatzen dut beste era batekoa izan banintz eta horren jenio bizia izan ez banu, lasaiago egongo nintzatekeela. Baina, tira, momentu haietan, nire gain zegoen ardura guztia, eta, noski, egoera kontrolpean izan behar nuen, zirt edo zart egin behar nuen zenbait egoeratan. Hala denarik tokatu zait: txarra izatea, oso gaiztoa izatea, hobexea izatea... Autoritatearen papera ez zaigu inori gustatzen, oso kritikatu da, baina mugak jartzea beharrezkoa da; batez ere, haurrentzat. Mugarik gabe, umek ez dute erreferentziarik, ez dute irizpiderik.

Bestalde, udalekuetara ez ginen diru bila joan, ez ginen gauza materialetara lotu, eta hori oso gratifikantea da.

Gurasoekin eta udalekuetako herritarrekin sortu ziren harremanek ere asko bete ninduten.

Berriro joango al zinateke?

Taldearen artean antolamendu eta ardurak banatuz gero, zergatik ez? Horrelako gauza bat antolatzeke helburuak oso ongi definitu behar dira, eta taldeko dinamika eta borondate ikaragarria izan behar da. Gertatzen dena zera da: momentu honetan ez dakidala zenbateraino interesatzen zaizkigun horrelako ekintzak, zenbateraino prestatuko ginatekeen benetako auzolana egiteko, gure artean gauzak asko aldatu baitira, eta horrelako ekintzak antolatzeke ausardia ere behar da.

Udalekuak beste begi batzuetatik



Ana Mari, Juanita eta Jule sukaldariak Izun Jose Kruz lagun dutela.



Larraitz, Gorka, Aitziber eta Gotzon gaueko jolasetan antzezlan batetan.

Mari Lurdes Olazabal (Sukaldaria)

Zein oroitzapen dituzu?

Oroitzapen onak ditut. Ni Urdiainera joan nintzen lehenengoz. Ez dut urtea gogoratzen, baina, 34 bat urte izango dira honezkerok.

Gogoan dut haur askorentzat etxetik kanpora egiten zuten lehen oporraldia zela eta batzuek gaizki pasatzen zutela hasieran. Halako kasuetan, mimoak egin behar izaten genizkien; esate bate-rako, mina bazuten ura azukrearekin ematen genien botikaren partez.

Zu urte askoz izan zinen sukaldari. Zer da gehien gogoratzen duzun gertaera?

Urte batean, oso gaizki pasa genuen. Gastroenteritisa zabaldu zen, eta haur asko gaixotu ziren: bi haur ingresatu egin behar izan zituzten. Gogorra izan zen urte hura. Hala ere, ez pentsa, inork ez zuen etxera joan nahi. Hura da dudan oroitzapen txar bakarra; gainontzean, oroitzapen onak ditut. Berrito bueltatuko nintzateke.

Ana Mari Arza (Sukaldaria)

Gustura aritzen al zinen sukaldari lanetan?

Urdiainera joan nintzen lehenengoz, eta, orduz geroztik, ez nuen hutsik egin. Oso oroitzapen onak ditut, oso onak.

Gu haurrak esnatu baina lehenxeago jaikitzen ginen, gosaria prestatzeko, eta gogoan dut Cola-Cao mordo behar izaten genuela! Askok sukaldaria sartzen ziren, bazkaltzeko edo afaltzeko zer zegoen galdetzerara. Nik beti esaten nien alkornokea zegoela. Neska-mutilek alkornokea zer den galdetzen zuten harrিতා!

Arratsaldeetan, denbora libre pixka bat ere izaten genuen, eguzkia hartu edo paseatzeko. Igerilekura joaten ginen, oso ondo pasatzen genuen, haurrekin harreman gehiago izaten genuen, eta dutxa ere gustura hartzen genuen.

Hogei egunez etxetik kanpora egon behar izaten zenuen. Zer moduz moldatzen ziren etxeok?

Hasieran, nire seme-alabak ere nirekin egoten ziren udalekuetan. Gerora, eurek esan zidaten lasai joateko, eurak moldatuko zirela etxean. Egia esateko, bakarrik oso ondo konpondu ziren; asko ikasi zuten. Hori bai, noizean behin bisitatzerara ere joaten ziren.

Kontaiezaguz gogoratzen duzun momentu bereziren bat.

Gogoan dut behin, Artazkozen, etxe jabeek San Ferminetako entzierrora eraman gintuztela. Iruñera joan ginen, baina udaltzainek ez ziguten alde zaharrean sartzen utzi nahi. Azkenean, pasatzea lortu genuen, eta ziztu batean pasa zen goiza! Entzierroa bera ez genuen apenas ikusi, baina, oso ondo pasa genuen.

Berrito joango al zinateke?

Bai. Orduan izan genuen giro hura izateko eta orduan bezain ondo pasatzeko, berrito joango nintzateke.

Juanita Iturrioz (Laguntzailea)

Zure eta Jose Inazio zenaren laguntzarik gabe udalekuak ez liriteke berdinak izango.

Udalekuak martxan jarri behar zirela eta, sukaldari moduan joan nintzen hasieran. Jose Inazio hantetako minez hasi zen, eta etxera bueltatu behar izan genuen. Gerora ere, tarteka joan nintzen, sukaldari lanak egitera.

la astero bisita egiten zenuten, ezta?

Bai, askotan joaten ginen. Falta ziren gauzak edo enkarguak eramatera joaten ginen. Ondo pasatzen genuen bisita haietan!

Gurasoen enkarguak egitea ere tokatzen zitzaizuen, ezta?

Bai, bai. Eguraldi txarra egiten bazuen adibidez, haurrei arropa eraman behar izaten genien.

Iñaki Larrañaga (Apaiza)

Zein oroitzapen dituzu?

Ditudan oroitzapen guztiak onak dira. Denok elkar hartuta ibiltzen ginen: bakoitzak gauza bat edo beste bat egiteko ardurua hartzen zuen. Gainera, herritarrekin hitz eginda konturatzen zara udalekuek marka utzi dutela jendearen.

Etxea bilatzerakoan izan genituen gorabeherak ere oso gogoan ditut. Herri batetik bestera ibili ginen, eta etxeren bat hutsik egon zitekeela ikusten bagenuen, etxeagatik galdetzen genuen. Nahikoa sokatira edo eztabaida izaten genuen etxe jabeekin, batez ere lehenengo urteetan.

Haurrak zu noiz iritsiko zain egoten ziren...

Ni postari baten antzekoa nintzen: niretzat, pozgarria zen jendea zain zegoela jakitea. Zera pentsatzen nuen: "Hauek zain zeudek, eta gustura hartuko dizkitek orain ekarritako gauza hauek!".

Igande goizetan ez zen mezarik falta izaten. Ez dira asko izango halako meza bereziak eman dituzten apaizak, ezta?

Oso pozgarria zen niretzat. Elizako meza klasiko eta zurrunetatik aparte egindako mezak ziren, haurrentzako erakargarriagoak. Jendeak modu batera edo bestera egin zezakeen, askatasun gehiago zuen jendeak.

Zer da gogoratzen duzun berezi-na?

Haurrek euren betebeharrak asumitzeko zuten gaitasuna gogoratzen dut bereziki, umeak edozertarako prest daudela, eta euren ardurak nola betetzen zituzten ikusteak asko harritu ninduen. Udalekuetan ikusi nuen askotan haurrek helduei lezioa ematen digutela euren jarrerarekin.

Bestalde, azpimarratzekoa da udalekuetan jende asko euskaldundu zela eta beste askok indartu zutela euren euskara maila. ■

loiaiko putzuaren kontserbazio lanak

2008 urteaz geroztik udaleko ingurune naturalaren eta landa eremuaren kontserbazioa xede zuten ekintzak gauzatzeari ekin zitzaion *"Itsasondon ingurune naturalaren eta landa-eremuaren kontserbaziorako ekimenak. I. fasea"* proiektuaren bitartez. Ekintza ezberdinen artean besteak beste bertako basoak lehengoratzeko garbiketa eta landaketak, lurren erosketak eta landare inbaditzaileen erradikaziorako lanak burutu dira. Aldizkariaren aurreko zenbakitan ekimen hauetako batzuei buruzko informazioa eskaini da.

Ildo berari jarraiki aurten uztailean guztiontzat ezaguna den eta Itsasondoko Goierri auzoan lekutzen den loiaiko putzuaren errehabilitazio lanak burutu dira. loiaigoikoa baserriko bizilagunek (putzuaren jabe direnak) udalera jo zuten putzuak azaltzen zuen itxuraz kezkatu eta lehengoratzeko egon zitezkeen aukerei buruz galdeztu. Izatez, historikoki loiaiko putzua urmael ireki bat izan bada ere, pixkanaka eman den kolmatazioaren ondorioz (urak zerraman lurra pilatzen joan da,

urmaela erabat estaliz) egun zuen itsura lezkadi itxi batena zen, non artibia edota ezpata-ihia nagusitzen zen.

Ingurua lehengoratzeko helburuarekin garbiketa lanak burutu dira, bai putzuaren ertzean bai eta putzuaren erdigunetik lurra atereaz. Modu honetako inguruak sentikorrek dira oso ingurumenaren ikuspegitik, bereziki hainbat anfibioen (apo naiz igel) ugalketa lekuak baitira eta lanak burutzerakoan arreta berezia izan behar da. Hau honela izanik eta inguruenaren balio naturala bermatzeari begira lanak burutzerakoan Aranzadi Zientzia Elkarteko Alberto Gosá herpetologo adituaren aholkuak jarraitu dira, zeinak anfibioen kontserbaziorako hainbat putzuren

sorreran parte hartu duen Euskal Herri osoan zehar. Egun erabat landareirik gabeko putzu baten itsura badu ere, pixkanaka (bereziki ertzetan) lekuko landaredia garatzen joango da eta erdi-gunean urmael ireki bat ikusi ahalko da. Modu honetara, putzuaren balio paisajistikoa berreskuratzeaz gainera, ekologikoki duen garrantzia ere indartzea bilatu da. Lanen nondik norakoak ikusi nahi dituenak bertara gerturatzea baino ez du.

Putzuaren garbiketa lan hauetan modu erabat aktiboan jardun dute loiaigoikoa baserriko bizilagunek. Udalak berebiziko garrantzia eman nahi die modu honetako jarrerari, gure ondare naturalaren zaintza eta kontserbazio egoera ziurtatu nahi badugu ezinbestekoak baitira herritarren eta udalaren arteko hartu-eman eta kolaborazioa. Hau dela eta, udalak herritarroi deia egiten dizue zuen lurretan ere ingurumenaren kontserbaziorako ekimenak burutzeko laguntza edota aholkuak behar izanez gero udalera bertara jotzeko informazio eske. ■

1945. urtean Justino Mujika Urretabizkaia eta Justino Larzabal Mujika loiaiko putzuan.



1973. urtean Ana Aramendi Aramendi, Maria Aramendi Aramendi eta Manuel Aramendi Arza loiaiko putzuan.



Putzua garbiketa lanak egin ondoren.



Lanak egin aurretik putzuaren egoera.

**Omenaldi hunkigarri batekin
oroitu dute Juan Mari Otegi 'Txato',
hil zutela 25 urte bete direnean.
GAlek tiroz hil zuen lekuan bertan
dozenaka lagun eta senide bildu ziren
itsasondoarra omentzeko.**

.....
Txato gogoan
.....



*Txatoren oroigarriaren aurrean dantzariak
aureskua eskeini zioten.*



*Ezkerretik eskubira eta goitik behera:
Lagunekin Orion.
Benantxio Etxeberria,
Txato, Juan Martin Otaegi,
Martin Rezola, ezezaguna,
Jose Manuel Mendizabal eta
Angel Etxeberria.*



*Ezkerretik eskubira eta goitik behera.
Lagunekin Legorretan.
Txato, Benito Garro, Martin Mingo,
Martin Azedo, Jose Manuel Mendizabal eta
Miguel Etxeberria*



*Ezkerretik eskubira eta goitik behera.
Lagunekin Kontxan
Pedro Mari Landa, Jose Manuel Mendizabal, Martin Solis,
Angel Etxeberria, Jose Luis Rezola, Txato, Eduardo Iturrioz,
Jose Mari Ezeiza eta Jose Antonio Olazábal*

Omenaldi xume eta hunkigarri batekin oroitu zuten Juan Mari Otegi "Txato" joan den uztailaren 31n, Azkaraten, Nafarroa Beherean. Abuztuaren 2an, 25 urte bete ziren GALek itsasondoarra tiroka hil zuela.

1985eko abuztuaren 2an, lanetik irten eta etxera autoz zihoala, motor batean zihoazen bi lagunek tirokatu eta hil zuten euskal errefuxiatu politikoa. GALek tirokatu zuen lekuan bertan egin zitzaion omenaldia itsasondoarrari. Dozenaka lagun eta senide bildu ziren Azkarateko inguruetan, iheslaria oroitzeke asmoz.

Testu labur eta hunkigarri batekin ekarri zuten gogora lagun eta senideek Txato. Hil zutela 25 urte igaro izanagatik, gertatua oraindik argitu gabe jarraitzen duela salatu zuten han bildutakoek. Errudunak ez dituztela zigortu aipatu zuten, eta "isilik jarraitzen dutela denek; bai lege gizonak, bai prentsak, bai elizak eta baita "demokrata eta gizonen eskubideen zaintzaile suharrak" ere. Senide eta lagunak, baina, oraindik ongi gogoan dutela eta ez dutela ahantziko aitortu zuten.

Dantzariak dantza eginez eta Erramun Martirikorena abeslariak kantu batez omendu nahi izan zuten itsasondoarra. Eta omenaldia egin zen lekuan bertan harrizko oroigarri bat altxa zuten Txatoren oroimenez.

Bizitza osoa lanean

Bere bizitzako azken urteak Nafarroa Beherean egin bazituen ere, jaiotzez Itsasondokoa zen Txato. Beiti baserrian jaio zen 1942an. Hamar anai-arrebetan bigarrena zen Juan Mari. Galdaragilea zen lanbidez, eta Gaztañaga eta Eizmendi lantegietan lan egin zuen, besteak beste. Horrez gain, baserriko lanetan aritzen zen eta elektrizitatea eta elektronika ikasten aritu zen.

Lana ez zen dena, ordea, Txatorentzat, herriaren bizimoduarekin erabat inplikaturik eta kezkatua baitzegoen. Ikastola, dantza taldea eta gazteentzako lokal bat lortzeko gogotik lan egin zuen gazte-gaztetatik. Ahalegin berezia egin zuen ikastola sortu eta indartzeko. Helburua bete asmoz, lantegiko ohiko lanaz gain, beste lan bat lortu zuen, han irabazitako dirua ikastolari emateko.

Gazteentzako lokal bat lortzeko saiakera ere ez zen makala izan. Azkenean, bete zuen bere ametsa, eta Oargi elkar-atea zabaldu zuten. Egun, Hostal Izaskun dagoen eraikinaren beheko solairuan ireki zuten aipatu lokala, eta eztabaidak, asanbleak eta bilerak egiteko erabiltzen zuten.

Herriarentzat bizi zen, eta herriarentzat lan egin zuen. 1973. urte inguruan, ETAko kide bihurtu zen. Urte gutxi barru, 1975ean, 33 urte zituela, Lapurdira ihes egin behar izan zuen. Baionako pisu batean jarri zen bizitzen, beste lau errefuxiatu politikorekin batera. Haiek jarri zioten Txato ezizena Juan Mariri, bere sudurraren tamaina zela eta.

1982an, Donibane Garaziko baserri batera joan ziren bizitzera Txato eta haren neskalaguna Karmele. Baserri giroa gertutik ezagutzen zuen, eta aise

moldatu zen nekazal giroa. Omenaldian Askatasunak oroitu zuen moduan, "laborariekin harreman estua egin zuen". 1984an, Arrosa herriko (Nafarroa Beherea) Denek kooperatiban hasi zen lanean.

GALen ekintzak

Euskal errefuxiatu eta senideen kontra GALek abian jarritako ekintzak ugartzen hasi ziren garai haietan. Hori dela eta, gutxitan irteten zen etxetik, lanerako joateko ez bazen. Hain zuzen ere, lanetik etxerako bidean tirokatu zuten 1985eko abuztuan. Arratsaldeko bostak eta erdiak gertatu zen eraso. Hiru balez zauritu zuten, eta haietako bat toraxean sartu zitzaion, bihotzetik oso hurbil. Atentatua gertatu eta gutxira, eraso gertatu zen lekutik igarotzen ari zen lagun batek autoz eramanean zuten Izpurako erietxera (Nafarroa Beherea). Zaurien larritasunak ikusirik, helikopteroz eramanean zuten Txato Baionako ospitalera. Han bertan hil zen, atentatua izan eta bi ordura.

Hilabete batzuk geroago, 1986ko otsailean, Nagore Otegi Txatoren alaba eta Karmele Martinez bikotea arin zauritu zituzten Baionako Batzoki ostatuan izandako tiroketan. Atentatu hori ere GALek hartu zuen bere gain.

1980ko hamarkadan sortu zen GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación). Espainiako Barne Ministerioiko goi mailako funtzionarioek sortu eta gidaturiko taldea izan zen GAL. ETA eta haren ingurua deusezteko zuten helburu. 1983tik 1987ra bitartean hogeita hamar ekintzatik gora burutu zituzten, eta hirurogei lagun inguru hil eta zauritu zituzten. Haien artean Txato. ■



7. Ibilbidea

Itsasondo-Arama-Abali-Altzagarate-Itsasondo

Iraupena: 2 ordu eta 45'

Ibilbidea:

Itsasondo- Aramako hilerria: 25'
Aramako hilerria-Abali: 50'
Abali-Altzagarate: 30'
Altzagarate-Itsasondo: 60'



Deskribapena: Ibilaldi honi, Aramara doan bidetik hasiera emango diogu. Aramako parkea zeharkatu eta bertako hilerrira zuzenduko gara. Hilerria atzean utzita, Abalira doan bidea hartuko dugu, Etxeberri eta Artsuaga baserrien ondotik pasatuz eta arrasto txuri-oriak jarraituko ditugu Abaligoenara iritisi arte, hemen bidea bi eraikinen artean pasatzen da, honi jarraitu eta Bostaitzetako norabidea hartuko dugu. Altzagaraterako bidea ondo markatuta dago. Atsedena hartzeko leku aproposa izan daiteke hau. Bueltako bidea hasiko dugu orain. Altzagara doan errepidetik behera ekin eta berehala (200metrotara, Iturralde baserriaren ondotik) eskuinera Altzagara doan bidexidorraren seinalearekin topo egingo dugu, SL-GI-16. Honi heldu eta ur-depositutik eta hilerritik pasatuz, pixkanaka-pixkanaka jeitsiz, zuzen eutsiko diogu bide honi, bidegurutzerik hartu gabe Errezola baserriera heltzean, baserria ezkerretara utzi eta behe-runtz segituko dugu, lehenengo bidegurutzean eskuinetara hartuz. Laister Sorabilera iritsiko gara eta pistari jarraituz Bengoetxera, autobidearen azpitik igaro eta bueltako bidea hartuko dugu. ■

Aramako hilerria





25-45 arteko jendea ere bideojokoetan ibiltzen da. Horrek esan nahi du bideo-jokoak ez direla umeentzat soilik. Hori ikusita, adin askotako pertsonentzat pentsaturiko jokoak ere ikus daitezke.



Bideo-jokoak umeen gauzak al dira?



Aspaldian, atzean gelditu da ohizko esaldi hau: "Ez al zara nahiko heldua bideo-jokoetan ibiltzeko?" Gaur egun, bideo-jokoak kontsumitzen dituzten gehienak 25-45 urte artekoak dira, gutxi gorabehera. Hala eta guztiz ere, bideo-joko baten aurrean denbora gehien pasatzen dutenak 18 urtetik beherako kontsumitzaileak dira.

Bideo-jokoa edonoren eskutan egon daitekeen produktua da, baina hori hala izanik ere, gomendagarria da bideo-jokoaren etiketa informatiboak irakurtzea, jateko produktu batekin egiten dugun bezala. Nork ez du erosi jateko produktu bat eta azukrea duen edo ez, grasa asko duen edo ez egiaztatu? Gauza bera egin beharra dago bideo-jokoekin; izan ere, joko asko ez daude pentsatuta adin guztietako pertsonentzat.

Joko askok eszena gogorak dituzte (hala nola, biolentzia handikoak). Joko horiek ez dira gomendagarriak 18 edo 16 urtetik beherakoentzat. Adibide bat:

"Grand Theft Auto" sagaren jokoak. Hiri bateko biztanle baten rola harturik, edonor hiltzeko gaitasun eta askatasun guztiak ematen dizkizu joko horrek.

Hala eta guztiz ere, badaude adin tarte guztietako pertsonentzako jokoak, baita haurrentzakoak ere. Famatuenetarikoa bat Pokemon da.

Hala eta guztiz ere, gaur egun modan jarri diren jokoak, batik bat, online jokoak dira. Joko horietan interneten bidez ibil zaitezke, beste jokalariekin batera. Horrek kanpoko jendearekin sozializatzeko aukera ematen digu.

Normalen online jokoak "shoter" izeneko jokoak dira; hau da, tiro egitekoak, "Call of Duty", "Medal of Honor", "Counter Strike" eta abarren estilokoak.

Baina estilo horretaz aparte, badaude "MMORPG" jokoak, edo, hobeto esanda, online rol jokoak. Joko horietan, zure pertsonaia sortu, pertsonalizatu eta rol bat asmatu edota aukeratzeko duzu, eta, behin pertsonaia sortu eta gero, beste

jokalarien laguntzaz mundu birtual baten sartzen zara, zure istorioa sortuz. Estilo horretako jokorik famatuena "World of Warcraft" da. Beste batzuk ere sortu dira; adibidez, "Aion", "City of Heroes"...

Ikusten duzuen bezala, gama eta aukera asko daude, joko bat edo beste aukeratzeko. Baina beti egin behar diogu kasu jokoak dakarren informazioari –gehienean, kaxaren atzealdean etortzen da-. Informazio hori PEGI ematen du (<http://www.pegi.info/es/>), eta bertan informatzen digu nolako edukia izango duen jokoak.

Espero dut gauzak behar bezala argitu izana. Badakizue: edozein duda baldin baduzue, nirekin harremanetan jar zaitezke, nire helbide elektronikoan. ■

djashbazaga@hotmail.com

San Joan sua



Urtero bezala, jende andana bildu zen suaren ingurura, sardinaren usaina plazatik kaleetan zehar barreiatu ahala. Herritarrek elkarrekin solasaldian egoteko, eta sardinak eta sagardoa dastatzeko aukera izan zuten. Aurten ez da dantza ikuskizunik egon, eta pena izan da guretzat azken urteetan hainbeste kostatako ekimena bertan behera geratzea. Ea datorren urtean beste ahalegintxo bat egin eta berriz martxan jartzeko aukera dagoen; hemendik animatzen zaituztegu.

Zinema kalean



Aurten ere Zinema Kalean izeneko zikloa hasi dugu, dagoeneko gure artean klasikoa den zine emanaldia, hain zuzen ere. Goiko plazan emanaldia egiteak ziurtasunik ematen ez zigunez, Gaztelekuan egitea erabaki genuen. Lehenengo emanaldira haur eta gaztetxoak soilik azaldu ziren, eta guraso eta helduak herriko plazan geratu ziren. Hori ikusirik, zine emanaldia plazara eramatea erabaki genuen, jendea biltzen den gunetik gertuago jartzeko, baina emanaldi horretara ere oso jende gutxi bildu zela ikusita, zikloa bertan behera uztea erabaki dugu. Pena izan da guretzat erabaki hori hartzea, baina une honetan zentzuzkoena iruditu zaigu. Geroak esango du...



Amuriza eta Sarasua Karrapean bertsoan



Sagardo dastaketa

Abuztuko jaiak 2010

Abuztuak 15, igandea, Andra Mari jaiak ospatu genituen Itsasondon. Giroak askorik lagundu ez bazuen ere, egun ederra pasatzeko aukera izan genuen.

Goizean goiz, txistularien eresia izan genuen herriko kaleetan zehar. Ondoren, mezaren txanda izan zen. Elizako erretaulan egindako zaharberritze lanak izan genituen aurtengo berrikuntza. Meza ostean, hamaiketako izan zen, Amuriza eta Sarasua bertso-larien saioak lagunduta. Bertsoak amaiturik, toka txapelketa jokatu zen. Aurtengo irabazleak Jose M^a Mendizabal, Antonio Etxeberria eta Josu Sarasola izan ziren, hurrenez hurren. Partaideek gogoia eta intentzioa jarri zutela ezin ukatu.

Arratsalde partean, pilota partidak izan genituen: emakumeak palaz binaka, eta, ondoren, gizonezkoak eskuz binaka. Lehiarik ez zen falta izan, eta bildutako jendeak interes handiz jarraitu zituen partidak. Amaitzeko, sagardo dastaketaren unea iritsi zen. Kanpoko giroa hotza bazen ere, barruak goxatzeko ederki etorri ziren sagardoa eta pintxoak.

SE LO QUE ESTAS PENSANDO

Jhon Verdon



Intrigazko liburua dugu, lehen orritik harrapatu eta amaitu arte utzi ezin duzun horietakoa.

Gizon batek gutun bat jaso du. Gutunean jartzen duenez, zenbaki bat pentsatu behar du, eta zer gertatuko eta berak pentsatutako zenbakia gutunazalaren barruan dagoen zenbaki bera da. Hortik aurrera misterioa korapilatuz joango da, eta hilketa bat ere gertatuko da tartean. Horrelakoetan gertatzen den bezala, beste ezer ez kontatzea eta norberak irakurtzea izaten da hoberena.



LOS OJOS AMARILLOS DE LOS COCODRILOS

Pancol, Katherine

Nobela Parisen kokatuta dagoen arren, ez ezazue uste krokodilorik ez dagoenik, bizitzaren oihanean denetarik aurkitzen baitugu. Nobela gizonez mintzo da, baita emakumez ere, izan nahiko genukeen emakumez, gu ez bezalako emakumez edo agian etorkizunetan izango garen emakumez.

Gezur baten istorioa da, baita amodio, laguntasun, traizio eta ametsezko istorio bat ere. Bizitza bezalakoa, irribarrez eta malkoz bustia.



KONTRARIOA,

Garro, Lander

Raul Oliveirak xakean eta edaten pasatzen ditu arratsak Oskar adiskidearekin, amodio ezinbestekoetatik ihesi, idazle izateko ametsekin zorabiatuta. Oreretako Pontika bazterreko auzoan bizi da amarekin, baina aurki lanen bat topatu ezean ostikoz botako du etxetik.

Amaitzean da urtea, estutasuna bultzaka ari zaio aro berri bati ekin behar diolako, eta nora gabe horretan patuari iskin egiteak zaila dirudienean, Gabriela ezagutuko du.


Irribarrea eragiten duen istorioa petrala da Kontrarioa. Galtzaile baten ibili piperrak kontatzen ditu Lander Garroren lehendabiziko nobelak.



KATU JENDEA

Rodriguez Martin, Eider

Hemen eta gaur giroturiko zazpi istoriotan barrena, gizon-emakumeen sentimendu esan gabeko eta ahultasun ezkutueta arakatzen du Eider Rodriguezek: desiraren zirrikituak, edertasunaren ongaitzak, diruaren morrontzak, sexualitatearen ernetzea, ilusioen itzaltzea.



PATZIKUREN PROBLEMAK

Katixa Agirre

Pozik eta alai bizi zen Patziku aitarekin eta amarekin, Adele txikia jaio arte; izan ere, beti negarrez, edo korroskadaka, edo titia xurgatzen ari den gauza horrek hankaz gora jarri du Patzikuren bizitza. Baina neska bat ote da Adele? Patzikuk dinosauro itxura susmagarria hartzen dio...

LIBURUTEGIKO BAZKIDE TXARTELA

Liburutegiko bazkide egin nahi duen edozein herritarrek,
Udaletxera joan eta eskaria egin behar du.
Bertan liburutegira eta Kzgunera sartzeko aukera
emango dion txartel magnetikoa eskuratu ahal izango du.
Txartelaren kostua 2€koa da.

(lorezaintza gomendioak)

Izurriteak

Geranioaren tximeleta

Urte asko darama geranioak gure balkoi, lorategi eta terrazak edertzen, lora ederrak baititu eta luzaro irauten baitute (udaberrian hasi eta udazkenara arte). Izan ere, ez du zaintza gehiegirik behar, eta exijentzia gutxiko landarea da.

Baina, azkeneko urteetan, ezin izan ditugu uda guztian loretan mantendu, temperatura igotzen denean lehortu egiten baitira eta, horren ondorioz, ez dute lorarik ematen.

Egoeraren erruduna tximeleta baten eraso da. "Geranioaren taladroa" deitzen zaio. Orain dela 20 bat urte iritsi zen Mallorcatik, eta Afrika du sorleku. Uste da ibilbide hori kimu baten bidez edo kutsatutako landare batez egin zuela. Jaioterrian etsai naturalak dituenek, ez da ugaltu eta izurritea izatera iristen, baina Europan ez da ezagutzen aurre egingo dion etsairik.

Deskripzioa

Cacyreus marshalli tximeletak hego marroi distiratsuak eta hertz zuriak ditu. Beldarrak berde argiak dira, eta, haziz doazen heinean, ilundu egiten dira. Krisalidak ere iletsuak dira, eta marroi kolorea hartzen dute, heldu izateko ez tandaren aurreko egunean edo bi egun lehenago. Arrautza horietatik larbak ateratzen dira, eta berehala geranioaren kapuluan sartu eta jan eta hustu egiten dituzte. Kapulu gehiago egonez gero, kanpoaldetik jaten jarraitu edo zurtoinean sartzeko dira, eta dena desegiten dute, jaten duten bitartean beherantz eginez.

Zurtoinetan nabariak dira sartzeko egiten dituzten zuloak, eta poliki-poliki zimurtzen joaten dira.

Kontrola

Izurrite horren aurka borrokatzea oso zaila da, beldarra zurtoin barruan dagoelako eta intsektizidek ez dutelako bere osotasunean harrapatzen.

Garrantzitsua da geranioak behin eta berriz aztertzea, eta, udaberri aldera lehenengo tximeletak ikustean, tratamendua 15 egunez behin eman. Etsi gabe jarraitu behar dugu hilabeteetan, izurritea kontrolatua edukitzeko, eta, tximeletak ugaltzen direnean, astero errepikatu beharko dugu tratamendua.

Landarea erasotuta badago, zauritutako zurtoinak moztu egin behar dira, senda daitezten. Landareak ugaltzeko kimuak erabili nahi baditugu, ziurtatu behar dugu ez dardela kutsatuta.

Bestalde, landareari laguntzeko eta eder egoteko, garrantzizkoa da ongariak ematea eta behar den bezala ureztatzea.



Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Sagar mitorria mamiarekin

Osagaiak:

Bi sagar
Ardi esne litro bat
Glasa azukrea
Gatzagia

Prestakuntza:

Hasteko, mamia prestatuko dugu: ardi esnea irakiten jarriko dugu, baina kontuz, erre ez dadin. Izan ere, koipe handiko esnea da, eta oso erraz erre daiteke. Irakiten hasitakoan, buztinezko potetxo batzuetan banatuko dugu -buztinezko potetxorik ez baduzu, edalontziak erabili ditzakezu-. Edalontzi bakoitzean, 3 tanta gatzagi botako ditugu, eta, hoztutakoan, mamia prest izango dugu. Nahi izanez gero, azukre pixka bat ere bota diezaiokegu esnari.

Bestaldek, sagarra oso xerra finetan moztuko dugu (mandolina baten bidez), eta labeko erretilu batean jarriko ditugu, laberako paper baten gainean, itsatsi ez daitezten. Horren ondoren, txano baten bidez, glasa azukrea gainetik botako diegu, sagar xerrak guztiz zuritu arte, eta erabat estali eta labean sartuko ditugu, 190 gradutan, azukrea karamelatu arte.

Labetik ateratakoan eta sagar xerrak hoztu baino lehen, erretilu aterako dugu. Berrito ere, "kontuz erre gabe", karameluak tenperatua handia hartzen du-eta. Xerrak hozten direnean, gogortu egingo dira.

Jateko, sagar xerrak eta mamia tartekatuz prestatuko dugu platera. Gustukoa baduzue, bota ezti pixka bat gainetik.



Jose Ignacio Duhau
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Informazio pantallak

Herritarrei jakinerazi nahi dizuegu, hemen-dik aurrera, Udalak herritarrei informazioa iristeko bide nagusi bezela, herrian zehar (mediku etxean, dendan, Kaxintanen, Udaletxean eta liburutegian) dauden informazio pantallak erabiliko dituela. Komenigarria litzateke hauei atentzioa jartzea intereseko informazioa aurki bait dezakezu bertan.



Esaera zaharrak

"Alferrik da ura joanda gero presa egitea".
"Nahi bada jan, egin behar da lan".

Kultur Agenda

Urria

- Mendi irteera, urriak 17
- Jaietako bazkaria

Azaroa

- Gaztaina bilketa
- Gaztaina jana

Abendua

- Euskararen astea:
 - Kantu aforia
 - Antzerkia
 - Talo festa

Urkiako Jaiak

Irailak 11, larunbata

20.00 Suziri jaurtiketa festak hasteko.
21.00 Lagunarteko AFARIA elkartean.
23.00 LAJA eta MIKEL trikitilariak.

Irailak 12, igandea

10.00 MEZA NAGUSIA
11.00 Hamaietakoa
ELORTZA ANAIK trikitilariakin.
14.30 BAZKARIA.
18.30 HERRI KIROLAK:
ARROSPIDE, UGARTEBURU,
ESNAOLA eta ZALDUA
20.00 ELORTZA ANAIK trikitilariak.

Irailak 14, asteartea

Gurutze Deunaren Eguna

11.00 MEZA NAGUSIA
Ondoren:
Hamaietakoa OSTOLAZA eta
ANDONEGI trikitilariakin.
14.30 BAZKARIA.
19.00 Erromeria OSTOLAZA eta
ANDONEGI trikitilariakin.

Telefono interesgarriak



UDALETXEA	943 881170
• GIZARTE LAGUNTZAILEA	
• UDAL ARKITEKTOA	
• EPAITEGIA	
HAURESKOLA	943 164831
HERRI ESKOLA	943 887704
ARBEL-AITZ ELKARTEA	943 889399
LURDES JANARI DENDA	943 885236
ARRASTOA BOTIKA	943 882148
MEDIKUARENEAN TXANDA HARTZEKO	943 805800
KAXINTANE TABERNA	606 756551
NAUTIKO TABERNA/	
IZASKUN HOTELA	943 880012
IZASKUN ILEAPAINDEGIA	943 160285
SASIETA	943 161555
TRASTE ZAHARRAK	943 161590
TAXI (ORDIZIA)	943 881486

itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria (((10. zk))) iraila-abendua 2010

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Martinez Maitia
Ainara Urteaga
Arantzadi Elkarte
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Edurne Ayuso
Eskolako haurrak
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Javier Iparragirre
Jose Ignacio Duhau
Jose Luis Aranburu
Jubilatuak
M^a Jose Arrizabalaga
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Menizabal
Miren Seguro
Nagore Etxeberria
Rosi Noguera
Unai Agirre
Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABENDUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN.**

